

Jolasetik musikara: Hots tresnak eta jostailuak (erakusketa); Hots, erritmo eta musika jolasak (tailerra)



Juan Mari **Beltran Argiñena***

Askotan, musika jolasa moduan agertzen zaigu. Horrela danean, adina, inguru eta bestelako baldintzen arabera, jolasteko mota askotako jostailuak, hots-tresna, hots-jostailu edo soinu-tresna izatera aldatzen dira. Denboran zehar hots-jostailu edo tresnekin egiten diren mota askotako musika eta erritmo jolasak helduen eta haur entretenimenduan, prestakuntzan, hezkuntzan eta bizian funtzio ezberdin asko eta garrantzitsuak bete dituzte, eta betetzen dituzte oraindik, munduko herri kultura horietako zati bat izanik.

Giltza-Hitzak: Musika. Jolas. Soinu-tresna. Haurra. Jostailu.

En muchas ocasiones, vemos la música como un juego. En esos casos, dependiendo de la edad, el entorno y otros condicionantes, muchos tipos de juguetes pasan a ser instrumentos de sonido, juguetes de sonido o instrumentos musicales. A lo largo del tiempo, los juegos de música y ritmo que se practican con instrumentos o juguetes de sonido han cumplido y siguen cumpliendo muchas funciones diferentes en el entretenimiento, la formación, la educación y la vida de niños y adultos, convirtiéndose en parte de las culturas populares del mundo.

Palabras Clave: Música. Juego. Instrumento de sonido. Niño. Juguete.

Nous considérons bien souvent la musique comme un jeu. Et, en fonction de l'âge, de l'environnement et d'autres conditions, de nombreux jouets deviennent des instruments sonores ou des jouets musicaux. Tout au long de l'histoire, les jeux de musique et de rythme pratiqués avec des instruments ou des jouets sonores ont exercé et exercent encore aujourd'hui différentes fonctions, dans le domaine des loisirs, la formation, l'éducation et la vie des enfants et des adultes et font partie des cultures populaires du monde.

Mots Clé : Musique. Jeu. Instrument sonore. Enfant. Jouet.

* Herri Musikaren Txokoa. Tornola, 6. 20180 Oiartzun. herrimusika@herrimusika.org.

1. JOLASA: ENTRETENIMENDUA, AISIALDIA, PRESTAKUNTZA, HEZKUNTZA

Askotan, musika jolasa moduan agertzen zaigu. Horrela danean, adina, inguru eta bestelako baldintzen arabera, jolasteko mota askotako jostailuak, hots-tresna, hots-jostailua edo soinu-tresna izatera aldatzen dira.

Segidan ikus daitekeen bezala, denboran zehar hots-jostailu edo tresnekin egiten diren mota askotako musika eta eritmo jolasak helduen eta haur entretenimenduan, prestakuntzan, hezkuntzan eta bizian funtzio ezberdin asko eta garrantzitsuak bete dituzte, eta betetzen dituzte oraindik, munduko herri kultura horietako zati bat izanik.

Helduek jolasten dute lanean ari direnean lanaren gogortasuna eta nekea arintzeko eta atsedenetan momentu horiek atseginagoak izateko.

Artzainek mendian artalde zaintzen zeudelarik, bakardadea eta aspertzearen aurrean, oihuka edo irrintzika hasten ziren inguruan zabilen beste artzain batekin modu horretan jolasten hasi nahi zuenean. Besteetan hurritzaren azalez egindako oboea den sunpriñua izan daiteke jolas horretarako jostailua eta bere joaldiekin jolas horretan parte hartzera gonbidatuko ditu beste artzainak.

Baserriko gari jotzen, ote jotzen eta sagarra jotzen ari direnean, lan gogor, luze eta astun horiek ez dira xamurrak, oso neketsuak dira, aspergarriak dira eta hori arintzeko lana jolasa bihurtzen dute eta horrela lan ordu gogorrek jolas orduak izaten dira.

Lan monotono horiek aldakorak eta entretenigarriak egiten dira jolasaren bitartez. Buruak pentsatu behar du zer egin jolasaren momentu bakoitzean, erne egon behar dute eta jolasaren norgehiagoka horretan trebetasuna erakutsi behar dute.

Bestalde eritrmoko jolas horien bitartez egin behar den lana antolatu eta neurtu egiten dute.

Hurrek jolasten dute entretenitzeko, bizitzen ikasteko, ingurua ezagutzeko... Hurrek jolasaren bitartez ezagutzen eta prestatzen dute beren gorputza, bizitzaren araudiak eta inguruaren bilakaera. Herri-kulturan hots-jostailu asko, urtaroz urtaro, inguruan lurra emandako landare eta fruituekin egiten dira. Horrela, hots-jostailu asko egitea eta erabiltzeak bere urte garaia du eta horretatik kanpo ezin dira egin. Urtaro barnean kontuan hartu behar da ilargiak landareen gain duen eragina. Horrela hots-jostailuen bidez, eguzkia eta ilargiaren zikloak ezagutzen dira, baita landareek urtean zehar egiten dutena ere. Udaberrian esnatu eta ilgoran izerdiak sustraiaetik gora jotzen duenean, makila azalekin egiten diren zenbait txulubiten garaira da. Udan zenbaiten fruitu eta zuztarrekin egiten direnak. Udazkenean, fruitu lehorrekin edo arto makilekin eta neguko ilbeheran moztuko dugu hamaika tipotako txulubita eta turutak egiteko kanabera.

Jolasak laguntzen du gure bizia interesgarriago bihurtzen eta bestalde biziagoak eta sortzaileagoak egiten gaitu.

2. JOLASA: SORMENA, TREBETASUNA

Trebetasuna eta psikomotrizitate garapenean oso garrantzizkoa izaten da jolas egitea eta hots jostailuak erabiltzea. Gorputzaren psikomotrizitatea eta trebetasuna lantzeko oso egokia da.

Hots jostailuak erabiltzerakoan esku, behatzak, arnasketa eta gorputzaren bestelako zatiak era egoki eta koordinatuak erabiltzen ikasten da. Zein motako hots-jostailua erabiltzen den arabera, bere erabilpenak, gisa ezberdinetako mugimendu ordenatuak egitea eskatzen du, igurtzi egiterakoan, kolpatzerakoan edo astintzerakoan. Haizeko tresnak badira, hori guztia arnasketa egokiarekin koordinatu beharko da.

Haurtzaroan, jolastea eta entretenitzea izan da hots-jostailuek betetzen duten funtzio horietako bat. Irudimena eta sormena lantzeko benetan oso tresna egokiak dira.

3. HOTS JOSTAILUEN JOLASA - MUSIKA

Baina hots jostailuek betetzen duten funtzio nagusienetakoa, musikarekin loturik dago. Hauen bidez, benetako soinu-tresnak nola funtzionatzen duten ikasten da, zeren kasu gehienetan jostailu hauek soinu-tresnen prototipoak dira eta guztietan hauek bezala sailkatu ditzakegu beraien ezaugarri akustikoen arabera. Bestalde, musika era aktibo eta sortzailean egiten da, esaldi erritmiko eta melodikoak eginez.

Musika ikasteko hastapena eta bide egokia izan daiteke hots tresna hauekin jolas musikal egiten aritzea.

4. HOTS JOSTAILUAK – HOTS TRESNAK

Helduentzat edozein lan tresna jolasteko tresna izan daiteke:

- Aizkora: Aizkolariek jaiegunetan egiten dituzten beraien arteko norgehiagoka eta lehiaketetan erabiltzen dituzte.
- Aitzurra: Aitzurrekin egiten dira mota askotako lehiaketak.
- Trabaza: Ote jotzeko trabaza izeneko tresna astuna hots tresna gisa erabiltzen da ote jotzerakoan egiten dituzten joko erritmikoetan.
- Pisoia-maza: Dolarean sagarra jotzerakoan halako tresnekin egiten zituzten beraien arteko alternantziatzko joko erritmikoak. Baita lana bukatu ondoren ospatzen ziren festetan “kirikoketa” izeneko joaldietarako ere.
- Palanka: Harrobietako paretak zulatzeke erabiltzen diren palankak, lurra zulatzekeak.
- Makila: Mota askotako makilak erabiltzen dira gure folklorean ezagutzen diren helduen dantza-jokoetan.

Beltran, Juan Mari: Jolasetik musikara: Hots tresnak eta jostailuak (erakusketa); Hots, erritmo...

Artzainek lizar makila bati kendutako azal zintarekin egindako sunpriñuarekin mendian jolasten zuten, urrutitik elkar entzunez, beraien artean antolatzen zituzten “durunbele” izeneko joaldietan.

Haurtzaroan, jolastea eta entretenitzea izan da hots-jostailuek betetzen duten funtzio nabarmenena. Inguruko edozein tokia izan daiteke jolas tokia, edozein gauza izan daiteke jolas tresna. Hots jostailuak egiteko inguruko materialak erabiltzen dira. Batzuk urte osoan aurki daitezke eta besteak urtaroen zikloi lotuak daude. Azken hauen bitartez haurrek eguzkiak, ilargiak eta urtearen zikloak nola funtzionatzen duen ikasten dute.

Hots-jostailuen artean badaude haizezkoak, idiofonoak, sokazkoak edo membranofonoak direnak. Beste alderditik begiraturaz, batzuk melodikoak dira eta besteak erritmikoak. Beraz, haurrek jostailu horien bitartez musikaren alderdi ezberdinak landu ditzakete.

5. ERAKUSKETAREN HELBURUAK

Hori adieraztea eta mota eta adin guzietako jendeari modu entretenigarrian eta didaktikoan azaltzea da erakusketa honen helburua.

Horretarako hots-jostailuak, soinu-tresnak eta bestelako tresnak erakustez gain, erakusketan tresna eta ohitura horiei buruzko informazioa orokorra azaltzen da: nortzuk erabiltzen dute, nola, non, noiz, zertarako eta abar.

Hau da erakusketa honen helburua. Gai hau ezagutaraztea era zabalean: hots-jostailuak nola egin, nola erabili, bakoitzak eskaintzen dituen aukerak eta zein helburu, musikala, psikomotrizitatea, landareen ezagutza edo bestelakoak, lor ditzakegu hauen bidez.

6. ERAKUSKETAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIOAMENTUA

Erakusketan hots tresnak eta hots jostailuak orokorrean bi multzotan banaturik agertzen dira:

1. Helduen hots tresnak - jostailuak.
2. Haurren hots jostailuak.

Bere aldetik helduen hots tresnak - jostailuak lan tresnetan eta jolasteko edo musikarako eginak diren bi multzotan antolatuak daude eta bigarren multzo barruan, hauek hotsa emateko tresnaren ezaugarrien arabera.

Haurren hots jostailuak, soinu-tresnak balira, hotsa emateko tresna hauen ezaugarrietan oinarriturik antolatuak daude.

7. AURKEZTUTAKO HOTS JOSTAILU ETA TRESNAK

7.1. Helduen hots jostailuak

7.1.1. Lan tresnak



Ote Jotzeko trabazak.

- Sagarra jotzeko eta Kirikoketa jotzeko pisiak, maza keta mailuak
- Ttinbili Ttanbala eta Toberak jotzeko palankak

7.1.2. Musikarako hots tresnak, soinu-tresnak

• *Idiofonoak*



Txalaparta.



Toberak.

Beltran, Juan Mari: Jolasetik musikara: Hots tresnak eta jostailuak (erakusketa); Hots, erritmo...

– Arxaluak, Txaramelak, Paluek, Taulatxoak



Erronkariko harrizko kastañuelak.



Hernaniko tablatxoak.



Bizkaiko txaramelak.



Durangoko paluek.



Bizkaiko tarrañuelak.



Koilareak.



Kanabera.



Kaskamelan, Kokoa.



- Botila Igurtziak
- Ogi Biringailua
- Tronpa, Mosu-Gitarra

Hezurtxoak-Huesicos.

• **Aerofonoak**

- Sunpriñua
- Adarra
- Flautia (Zeharkako Flauta)
- Txilibitua - Txifloa

• **Kordofonoak**



- Tolosaldeko “Kontrabajoa”
- Zikiratzaile Txilibitua (Flauta De Pan)
- Membranofonoak:
- Ttipiuntzia, Zambomba
- Eltzegorra

Arizkungo “Arpa”.

7.2. Haurren hots jostailuak

• *Idiofonoak*

- Kalaka
- Kaskabeleta
- Matraka-mailuak
- Karraka
- Igela
- Raspa



Txepetxa kaskamelan, intxaurra.



Kilikalaska.

• *Membranofoak*



Turuta (mirlitón) (kanabera).



Turlurtea (intsusa).



Turuta-orrazia.

• **Kordofonoak**



Arto-biolina.


• **Aerofonoak**

Flautak

- Txulubita (zulorik gabe-tutu itxia)
- Txulubita (esku bateko zuloekin- intxusa, kanabera)



Txulubita (zuloekin, tutu itxia eta irekia).



Txulubita (latorria).

Beltran, Juan Mari: Jolasetik musikara: Hots tresnak eta jostailuak (erakusketa); Hots, erritmo...

– Txulubita (pistoia - lizar makila, gaztainondoa, makala, kanabera)



Txulubita (abrikot-hezurra).

- Txulubita-apeua (abrikot-hezurra, bi zuloekin)
- Ur-flauta
- Karrakela

Mihikoak

– Tronpeta-tutubia



Turuta - Oboeak: (gari edo olo zuztarra, edo plastikozko pajitatxo).



Turuta – klarinetea.

Tinkatutako zinta edo gomatxo bibrazioa

- Hegabera apeua

• **Aerofono libreak**

- Ziria



Burren-furrufarra.



Firringila.

8. HOTS, ERRITMO ETA MUSIKA JOLASAK

Tailerreko ariketa batzuk


8.1. Idiofonoak

8.1.1. Txepetxa, kaskamelana, intxaurra

Hots erritmikoak jotzeko den perkusiozko jostailua. Euskal Herriko toki askotan erabili izan dira halako perkusio-tresnak. Bizkaiko kostaldean, Gipuzkoan, Guk Nafarroako Larraun eta Sakanako bailaretan ezagutu eta erabili genituen gure haurtzarotan.

Txepetxa bat egiteko:

1. Intxaur bat hustu ondoren, intxaur azal erdia hartu eta mutur batean puskatzen zaio.
2. Bere gainean, luzeka, makilatxo bat jartzen zaio hari batekin estu-estu helduta eta osoa dagoen intxaur azalaren kontra tinkaturik.
3. Makilatxoak intxaurraren kontra indarrez jo dezan eta hots egokia eman dezan aria behar dena tinkatuko dugu. Jotzean makila honela mugitzen da.



Txepetxa jotzeko, behatz batekin zotzari beheraka eraginez, libre gelditzen denean honek intxaur-azala jo eta hotsa ateratzen du. Trebeziak mota guzietako erritmoak jo daitezke kantuak laguntzeko.


Erabilera eta helburuak

Intxaurrendoa eta bide batez zuhaitza eta landareen urtearen zehar egiten duen bizia eta fruitua ezagutu.

Esku eta behatzen mugimenduen koordinazioa eskema eta esaldi erritmiko ezberdinak landuz. Hona hemen joko batzuek:

- Biko erritmo jokoak





Hiru hortzeko kirtena bi esku artean harturik, alde batera eta bestera jirabirran jartzen da, orduan, sartutako makilak alboetako hortzetan jotzen du hotsa sortuz.

Jotzerakoan eskema erritmiko sinpleak errepikatzen dira. Trebetasuna dutenek, joko erritmiko interesgarriak lortzen dituzte.

Hona hemen adibide gisa, beste askoren artean, kilikalaskarekin jotzen diren bi eskema eta esaldi erritmiko.



Erabilera eta helburuak

Hiru hortzeko kirtena bi esku artean harturik, alde batera eta bestera jirabirran jartzen denean, sartutako makilak alboetako hortzetan jotzen du hotsa sortuz. Mugimendu horiek kontrolatuz eta ordenaturik koordinatuz, eskema erritmiko sinpleak jotzen dira. Kontuan harturik modu ez zuzenean eragiten dugula (guk kirtena alde-batera jiraturik makilak beranduago eta beste aldera joko du), zailago egiten da jotzen duguna kontrolatzea eta mugimendu aldaketa txikien bidez joko ezberdin eta konplexuak lor daitezke.

Helduek egiten dute haurren aurrean eta horrela tresna hondatzen danean, haurra berak konpontzen jakingo du.

Astakarduekin egin behar horrek, kilikalaskak noiz egin daitezken epea mugatzen du eta garai horretatik kanpo egiteko itsura horretako bestelako adartxoak erabiltzen dira.

8.1.3. Arxaluak-txaramelak, tarrañuelak

Zurezko taulatxo pareak dira. Jakin izan dugun eta izenak adierazten duen bezala, garai batean harri-xaflak ere erabiltzen ziren. Tokian tokiko itxura ezberdin hartzen dituzte.

Oraindik erabiltzen dira Gipuzkoa eta Bizkaiko zenbait tokitan, fandango, arin-arin eta martxa doinuak laguntzeko. Durango aldean “paluek” izenarekin ezagutzen dira eta behatzekin hobeto heltzeko forma berezia izaten dute. Hernani aldean “*taulatxo*” eta beste toki batzuetan *txaramelak* izendatuak ere badira.

Hondarribiko kale Nagusian XIX. mende bukaeran egindako argazki batean agertzen da halako soinu-tresna jotzaile bat gitarra eta lauda laguntzen. Gaur egun, inguru honetan ikusi eta entzun ditzakegu halako tresnak, esate baterako San Martzial erromerian.

Egiteko ez dute inongo zailtasunik. Neurriko taulatxoak prestatu eta azala osoa findu egiten da.

Egiterakoan erabilitako zura zenbait eta gogorragoa izan hotsa gehiago, ozenago eta agudoago emango dute. Horregatik, hots biziago eman dezaten, zura gogortu nahian, toki askotan, suarekin puntak erre egiten dituzte.

Bi taulatxo, eskuaren behatz tartetean heldurik, kriskitinen gisa jotzen dira. Horretarako bietako taulatxo bat tinko heldu behar dugu eta bestea lasai xamar harturik. Esku muturra astinduz eta bi aldeetara jirabiratzuz, lasai hartua dagoen taulatxoak tinko dagoenaren kontra jotzen du hotsa emanez.

Praktika eta helburuak

Esku, eskumuturra eta besoen mugimendu koordinatuak, joko erritmiko ezberdinak emanez. Hauek, bide-batez, norberak ematen duen kantuarekin koordinatu daitezke. Hasieran zail xamarra da, zeren esku mugimenduen eragina eta taulatxoek ematen dituzten kolpeak ez dira erabat batera izaten, baina praktikatzuz gero epe motzean joko erritmiko interesgarriak jo daitezke. Kontuan hartzeko da ere mugimendu txiki edo eskuaren keinu sinpleekin lor daitezke aldaketak.

Taulatxoak hartzerakoan, bien artean behatz bat edo bi tartean utzirik eta era horretan taulatxoaren artean eskuaren hutsunea edo erresonantzi kaxaren tamaina aldatzen da eta bide-batez hotsaren tonua alda daiteke.

Zura ezberdinak erabiltzerakoan, berehala ikus daiteke zuraren gogortasuna eta hotsen artean dagoen erlazioa. Zenbat eta dentsitate gehiago hots agudoago, sendoago eta jotzerakoan errepikatzea errazago izaten da.

Egiteko ez dute inongo zailtasunik. Hori bai, neurriak ematerakoan eskuaren tamaina kontuan hartu da.


8.1.4. Kanabera

Inguruko beste lurraldeetan bezala, Euskal Herrian eta bereziki Bizkaian ere erabili izan da (eta gutxi bada ere, oraindik ere bai), fandango, arin-arin, martxa eta halako doinuetan, erritmoa jotzeko.

Kanabera arrunta harturik, goitik behera, begi bateraino, zati bat osoa utzirik kirten gisa, pitzatu egin behar da erdi-erditik. Malgutasun ematearren alde baten leihio bat egiten zaio.

Nola egiten da?

1. Kanabera arrunta harturik, bi begi erdian utzirik moztu egiten da.
2. Goitik behera, begi bateraino, zati bat osoa utzirik kirten gisa, pitzatu egin behar da erdi-erditik.



3. Malgutasun ematearren alde baten leihio bat egiten zaio.

Begitik beherako zatia heltzeko kirten gisa erabiltzen da. Esku batekin kirtenetik heldurik, beste eskuaren esku-azpikoarekin igurtzi egiten da kanaberaren beheko muturra, horrela, libre gelditu diren bi kanabera erdiek elkarri kontra jotzen dute, kalaka edo kriskitinek ematen duten antzeko hotza emanez.

Erabilera eta helburuak

Eguzkiaren mugimendu edo aldaketak eta urtaroak. Honen eragina landareengan eta hauen bizi modua eta bestelako ezaugarriak.

Ilargia, bere mugimendu zikloak eta hauen eragina landareengan.

Tonu aldaketa kanaberaren neurriaren arabera. Moldatu luzera aldatuz.

Esku eta besoaren mugimendu ordenatuaren koordinaketa kolpe eta erritmo eskema ezberdin ahal egiteko.

Hasieran kanabera bakarrik joaz, geroago entzuten den musika lagunduz eta bukatzeko norberak jo eta abestu batera eginaz. Azken modu horretan gorputzaren alde ezberdinak antolatu eta koordinatu egin behar dira.

Oso interesgarria izaten da esku mugimendu edo jarrera aldaketa txikien bidez lor daitezken efektu erritmikoak eta hots aldaketak.

Helduak egiten du, bere aurrean haurra batentzat baldin bada.

8.2. Membranofuok

8.2.1. Tuluurtea-turuu (mirlintu)

Hots jostailu gisa erabiltzen dira. Ez dugu uste, Euskal Herrian halako haurrentzako soinu-tresna edo jostailurik erabili ez den txorik egongo denik. Toki gehienetan kanaberazkoak izaten dira eta turuta izenarekin ezagutzen dira. Toki batzuetan hustutako intusua-makilaz egiten dira eta tuluurte izena ematen zaie.


Elosuan (Gipuzkoa) intusuz egiten zuten eta "flota" deitzen zioten. Karrantzan (Bizkaia) "kanaberazko flauta" esaten zioten (Etniker, 1993).

Larraun bailaran (Nafarroa) intusuz egiten zuten eta "tuluurtea" deitzen zioten (Beltran, 1996).

Mutur batean tinkatutako papertxo bat du eta horren ondoan tutua zulatuta dago haizea botatzeko.

Intusua makilez egindakoak, honela egiten dira:


1. 20 zentimetro inguruko makila mozten da eta azala zuritzen da.
2. Barruan duen muina burdin ziri batekin ateratzen zaio tutua garbi utzirik.



3. Mutur batetik 5 zentimetrotara gutxi gora behera zulo bat egiten zaio.
4. Zulo ondoko muturra, ondo tinkaturik dagoen papertxo batekin isten da, aritxo batekin lotuta

Kanabera erabili ezker

1. Bi zentimetro inguruko diametroa duen kanabera tutu bat hartzen da eta 10-15 zentimetro inguruko luzerakoa moztu bi muturretatik irekita utzirik.
2. Neurriaren arabera mutur batetik 3 zentimetrora gutxi gora behera zulo bat egiten da.



3. Bukatzeko, alde horretako muturreko ahoa, erretzeko (zigarroetako) papertxo batekin ixten da.

Gaur egun, zigarroetako paperaren ordez, plastiko finezko paperak erabiltzen dira ere, eta hau ondo tinkaturik lotzeko gomazko eraztunak.

Beltran, Juan Mari: Jolasetik musikara: Hots tresnak eta jostailuak (erakusketa); Hots, erritmo...

Jotzeko, eskuarekin hartu eta tutuaren mutur ondoan egindako zuloa ahoa-ren kontra jartzen da eta jotzaileak, haizea botatzen da tururu... eginez, eman nahi duen doinua kantatu behar da, hotsa eta tonuak emanez.

Ahoarekin ematen duen doinuaren hotsa, papertxoaren bibrazioz aldatu eta handiagotu egiten da.

Praktika eta helburuak

Bakarka edo taldeka ematen diren doinu edo kantu ezagunen bitartez intonazioa landu. Bestalde, taldekako lan egiteak, joko polifonikoak lantzeko aukera ematen du.

Bere garaian ebakitako kanabera edo intsusa makila eduki ezker, urtearen edozein garaian egin daitezke halako tresnak. Bestela, kanabera edo intsusaren bizi-zikloa erakutsi beharko da.

Erakutsi ezker, gero hurrek egin ditzakete halako tresnak eta ez du inongo arriskurik.

8.3. Kordofonoak

8.3.1. Arizkungo “arpa”

Inauterietarako, beste gauza askoren artean, hotsa ateratzen duten tresna bereziak prestatzen dira. Guk hemen horietako bat aurkeztuko dugu. Hau, Arizkunen (Nafarroa) “harpa” izenarekin ezagutzen da.

Arizkungo inauterietan erabiltzen dira kantu eta dantzei laguntzeko, zarata ateratzeko eta txantxetarako halako tramankulu bitxiak edo helduen hots-jostailuak.

Makila luze batean, bi muturretan lotutako eta oso tenkaturik metalezko soka bat jartzen da. Behealdean, makilari josia, alanbre eta makila artean latazko bidoi bat. Bidoi honek aurrealdean zulo batzuk izaten ditu erresonantzi kaxa gisa funtziona dezan. Goiko makilaren puntan latazko puska batzuk ditu panderoen txindak moduan. Zurezko hortzak dituen makila.

Jotzeko era; bertikalki, esku batekin hartzen da eta lurraren kontra jotakoan, goiko txindek erritmoa markatzen dute. Beste eskuarekin, hortzak dituen ezpata moduko zurezko karraskagailu luze bat harturik (biolinaren arkuak duen zeregina), metalezko “soka” (kablea) igurtzi eta kolpatu egiten da.

Lehenago esan dugun bezala, tresna hau helduek erabili izan dute, baina erritmoa eta gorputzaren koordinazioa lantzeko, bere joerak eskeintzen dituzten aukera nabarmenak kontuan harturik, haurrentzat egin daiteken “bertsioa” oso interesgarri eta erabilgarria dela iruditzen zaigu.

Neurri txikiagoan egindako helduen kopia izan daiteke edo erabilera berdinsua izan dezakeen modu sinpleagoan egina. Azken hau horrela egin dezakegu:

Gutxi gora behera metro ta erdiko makila. Goialdean kristalezko poteen metalezko bi edo hiru tapa, iltze batekin josia.

Benetako "arpa" gisako hortz dituen zurezko ezpata.

Praktika eta helburuak

"Arpa" joerak hiru kolpe edo eragin mota ditu:

1. Esku batekin makila bertikalki lurraren kontra joaz. Bi hots mota; makilak lurraren kontra ematen duena eta metalezko txapak ematen dutena.
2. Beste eskuarekin "ezpata" harturik, Makilaren kontra joaz. Bi hots mota; zurak zuraren kontra jotzerakoan ematen duena eta kolpearekin makilak jasaten duen astinduaz txapak ematen dutena.
3. Ezpataren hortzekin makila igurtziz. Bi hots mota; Zurak zuraren kontra igurtzi eta hortzen erredoble hotsa eta kasu honetan ere txapen erredoble fina.

Eragiteko hiru era hauek erabiliz eta koordinatuz joko eta esaldi eritmiko ezberdinak eman. Beste batek ematen duen doinua edo norberak kantatzen duena lagunduz.

"Arpa" simple honek ez du inongo zailtasunik egiteko.

The image shows a musical score for the instrument 'Arpa' in 2/4 time. It consists of seven staves of music. The first two staves have descriptive text in Basque: the first staff describes a vertical strike against the ground, and the second staff describes a horizontal strike against the arpa's frame. The remaining five staves show rhythmic patterns using quarter notes, eighth notes, and rests, with some notes marked with an 'x' to indicate specific sounds or techniques. The score concludes with a double bar line.


8.4. Aerofonoak

8.4.1. Txulubita (latorrizkoa)


Euskal Herriko beste eskualde askotan bezala, mende honen berrogeigarren hamarkadan oraindik Nafarroako Sakana bailarako haurrek jotzen zituzten txulubita hauek.

Halako txulubita bat egiteko piper, tomate edo bestelako latorrizko pota bat hartu eta guraize edo bestelako tresnarekin ipurdia kendu eta goitik behera moz-tuz txapak duen kurbatura kenduz, zati lauki bat prestatzen da.

1. Txapa hori harturik, marrazkian ikusten den bezala, gutxi gora-behera aipa-tzen diren neurrietako latorrizko bi zati mozten dira.




2. Bi zati hauek, markaturik dauden tokietatik tolestean dira. Lehendabizi, zati luzeena, borobilez, haize depositua eta txulubitari itxura ematen diona.




3. Gero, aho-aldeko oraindik zuzen dagoen zati inguruan beste latorri zatia jartzen da, ondo tolestu eta haizearentzako kanal gar-bia eginez.

Borobilean okertu dugun zati horren mutu-rak, tarte utzirik, kanalaren parean egon behar du.



4. Bukatzeko, zati luzeak sobran duena behe-rantz tolestean da aho-pita behealdearen kontra.



Jotzeko haizea moko flautekin bezala botatzen da. Baina txulubita mota hau jo ahal izateko modu berezian hartu behar da. Bi behatzekin (lodia eta erakuslea) haize deposituaren alboko bi aldeak itxi behar dira eta orduan prest dago txistua egiteko. Horretarako, kanalaren zatia ahoan sartu eta haizea bota besterik ez da egin behar.

Txioka egin nahi bada, deposituaren barruan garbantzutxi, kortxo edo bes-telako bolatxo bat sartzen da. Haizearen eraginez bolatxoa bueltaka jartzen da txioka eginez.

Erabilera eta helburuak

Moko flautak nola funtzionatzen duten ezagutzea. Latorriz egindako aho-pitarren kanalean osatzen den aire zutabeak biselaren kontra jotzen duela, aire eragiten du hots bibrazioak sortuz eta hotsa emanez.

Hotsaren bolumena: Kanalaren neurriaren arabera eta biselaren kokapena eta honen leihoaren zabalera aldatuz hots handiago edo txikiago lortzen da. Kanalaren sekzioa handiago aire gehiago behar du, leihoa handiago, hau da, bisela kanaletatik urrutiago aire gehiago bota behar da, beraz, bietan hots handiago lortzen da.

Aire deposituaren neurriaren arabera, txulubitak tonua emango du.

Jotzerakoan konbinaketa ezberdin eginez, txistu esaldiak antolatu eta bide batez amasketa egokia landu daiteke.

la beti haurraren aurrean helduak egiten ditu. Poltsikoan gordetzerakoan estutuz, kolpeen eraginez edo bestela, txulubitaren latorria errez okertzen da eta orduan ez du hotsik ematen, horregatik haurrak konpontzen jakin behar du, bere funtzionamendua ezagutuz.

8.4.2. Turuta (oboe)

Gari-zuztar, oloaren zuztar eta artallorearekin zuztarrarekin haurrentzat egiten ziren bestelako turutak bezala, leku batzuetan egiten ziren halako turutak (klarinete simple).

Egiten eta jotzen erakutsi zigun Orioko San Martingo Sarobe baserriko Jose Peñak esaten zigunez, bere haurtzaroan halako turutarekin jolasten zutela. Bere aita zenak, olo edo gari zuztarrekin egiten zizkion.

Egiten ziren material horiek ez dira gaur egun oso eskuragarriak jende gehienarentzat eta horregatik horien ordeztzekoak diren edateko plastikozko lasto-oxoak erabiltzen dira.

Beltran, Juan Mari: Jolasetik musikara: Hots tresnak eta jostailuak (erakusketa); Hots, erritmo...

Bi muturrak irekiak dituen olo, gari-zuztar edo edateko plastikozko lastotxo harturik, mutur bat behatzekin zanpatzen da, dultzaina edo oboe tipotako pitaren gisa utzirik.

Esaldi melodikoak jo ahal izateko, tonu aldaketarako zulo bat, bi edo gehiago egiten zaizkio.

Jotzeko pita aldeko muturra ahoan sartu eta haizea bota. Tonu-aldaketarako dituen zuloak itxi-irekiz doinuak ematen dira. Tonua alda daiteke ere pitarengan eragiten den aire indarra eta muturraren presioa aldatuz.

Praktika eta helburuak

Olo edo gari zuztarrak erabiliko balira, uztaroetako gaia ikus genezake, baina material hauekin egiteak neurri handian mugatzen du turuta hauek egin ahal izateko epea. Olo edo garia horitu baino pixka bat aurretik (ekaina bukaera eta toki batzuetan uztaila hasiera).

Plastikozko lastotxoekin egiten badugu ez dugu edukiko halako mugarik eta urtearen edozein momentuan egi dezakegu.

Jotzerakoan edo jolasterakoan musikaren arlo ezberdinak landu ditzakegu: interpretazioa, imitazioa, memoria eta errepikatzea, erritmo ezberdinetan (metriko eta libretan) neurri motza eta luzeagoko esaldi melodiko ezberdinak emanaz. Horretarako egin eta erabili zulorik gabekoak, zulo batekoak, bikoak, eta gehiagokoak, interbalika ezberdinak aurkeztuz. Bide batez arnasketaren antolaketa landu daiteke ere.

Turuta hauek haurrei aurkezterakoan, tutuaren luzera (edo zuloen kokapena) nola aldatzen duen tonua ulertzeko, oso adierazgarria izaten da, tutu osoa hartu, pita prestatu, esku batekin turuta heldu, pita ahoan sartu eta jotzen den bitartean beste eskuan dugun guraizearekin puska txiki, beheko muturretik hasita, tutua moztu pixkanaka eta modu horretan eskala jo.

Hurrek egin ditzakete halako turutak aurretik erakusten bazaie.


8.4.3. Turuta, *gaita* (klarinetea)

Haurrentzat egiten zen hots-jostailu bat dugu hau. Orioko Jose Peñak (1909. urtean jaioa) eman zigun honi buruzko informazioa. Aitak egiten zizkion halako turutak Joseri bere haurtzaroan.

Kanabera-tutu batekin egiten dira alboka-klarinete gisako hots-jostailu diren turuta hauek.

Halako turuta bat egiteko, gutxi gorabehera sei - hamar milimetrotako diametro duen kanabera behar dugu.

1. Mutur bat itxia eta beste irekia duen kanabera tutu puska bat hartzen da.
2. Mutur itxiaren aldean albokari bezala mihia egiten zaio. Horretarako muturretik bost bat zentimetrotara, bueltan eta estuturik harizko eraztun bat jarzen zaio.



3. Laban zorrotz batekin zeharka mozketa eginik kanaberazko mihia altxatzen zaio harizko eraztuneraino. Mihi hau muturretatik bost bat zentimetrotara muturrerantz irekitzen bada ez dago haria jarri beharrik.
4. Tonu aldaketarako nahi den zulo kopurua egiten zaie eta horren arabera, turutak doinu simple edo itxurosoagok emateko balioko du.

Tutu honi, alboan hari edo zintarekin erantsirik edo loturik beste tutu bat jar diezaiokegu, klarinete bikoitza bat osatuz. Hau bi motatakoa izan daiteke; bi tutuetan zulo berdinak (kopurua eta kokapena) eginez edo zulorik gabe.

Biak berdinak eginez gero, biek batera hots berdin berdin emango dute eta tutu bat zulorik gabe uzten badugu, zuloak dituen tutuak doinua "kantatuko" du eta besteak bitartean azpiko nota pedala iraunkorra emango du, xirolarru gisa.

Jotzeko, pita aldeko muturra (bibratzen duen mihi osoa) ahoan sartu eta haizea bota egin behar da. Tonu-aldaketarako dituen zuloak itxi-irekiz doinuak ematen dira.

Digitaziorako bi joera erabiltzen dira; bata digitazio irekia eta bestea itxia.

Digitazio irekia moko flauta jotzeko erabiltzen den hori bera da, behetik gora zuloak ireki eta irekia dagoen behealdeko guztiak irekiak daudelarik.

Digitazio itxia erabiliz gero, zulo bakarra irekia mantentzen da eta tonu aldaketarako zulo berri bat irekitzen denean bestea ixten da. Sistema honekin, turu-

Beltran, Juan Mari: Jolasetik musikara: Hots tresnak eta jostailuak (erakusketa); Hots, erritmo...

ta tutu bakarrekoa denean, tonu aldaketa bakoitzean, zulo berria ireki baino pixka bat lehenago irekia zegoena ixten badugu, tarte txiki horietan nota baxuena entzuten da eta pedala iraunkorraren efektua lortzen da.

Erabilera eta helburuak

Urtearen zikloa. Urtaroak eta eguzkiaren mugimenduak landareengan duen eragina. Landarearen bizi zikloak eta ezaugarri fisikoak.

Ilargiaren zikloak eta landareengan duten eragina.

Tutu luzeraren arabera tonu aldaketak. Kasu honetan luzera hori zuloak itxi eta irekiz aldatzen da.

Arnasketaren antolaketa.

Doinua: Erritmo eta esaldiaren neurriak. Interbalika eta honen eragina “modu” musikaletan. Interbalika eta “modu” musikala zulo kokapenaren arabera aldatu daitezke. Imitazioa eta bat-batekotasun musikala landu.

Jotzerakoan edo jolasterakoan musikaren arlo ezberdinak landu ditzakegu interpretazioa, imitazioa, memoria eta errepikatzea, erritmo ezberdinetan (metriko eta libretan) neurri motza eta luzeagoko esaldi melodiko ezberdinak emanez. Horretarako egin eta erabili zulorik gabekoak, zulo batekoak, bikoak, eta gehiagokoak, interbalika ezberdinak aurkeztuz. Bide batez arnasketaren antolaketa landu daiteke ere.

Haurrek egin ditzakete halako turutak aurretik erakusten bazaie.

8.4.4. Burruna-furrufarra


Munduko hots-tresna unibertsalenetakoa dugu tresna hau, zeren antzeko itsura eta funtzionamenduarekin bost kontinenteetan erabiltzen da.

Aita Donostiaren (1952) euskal soinu-tresnen bilduman, haur-jostailuen artean halako “aerofono libreak” egin eta erabiltzen zirela ikusten dugu. Besteak beste zurrunbera izenaz Araban haurrek jolasteko erabiltzen zutena dugu. J. Caro Barojak (1977) Araban itxura berezia eta furrufarra izenaz honen berri ematen digu. J. M. Barandiaranek (1974) Saran aurkitu zuen burrun deitzen dioten tresna hau. Animaliak ikartzeko erabiltzen omen zen. Guk Oiartzungo bailaran burruna izenarekin aurkitu dugu.


Eskualdearen arabera forma ezberdinak hartzen ditu, baina kasu denetan mutur alde batean sokatxo bat luturik duen taulatxo luzanga bat izaten da.

Halako tresna bat egiteko taulatxo bat hartu behar dugu:

1. Taulatxo horri egin nahi den modeloaren arabera honek behar duen itsura zaio. Sokarekin lotzea egin ahal izateko zulo bat egiten zaio.



2. Sokarekin lotu eta erabiltzeko prest dago.




Arabako furrufarra egiteko bukaeran halako itsura eman behar zaio.

Tresna hau jotzeko, soka mutur batetik heldu, soka bihurtu beti zentzu berean jiratuz edo bueltak emanez eta ondoren taulatxoa eskuaren inguruan airean bueltak ematen jarri sokari eraginez. Bueltak ematen duen bitartean soka bihurtua dagoenez taulatxoa jirarazten du abiadura bizian, hasieran alde batera eta gero kontrakoan. Taulatxoaren errotazio eta translazio mugimendu horrek, soinu-tresna honen hots berezia sorrarazten du.

Taulatxoaren translazio mugimendua bi erara egin daite:

1. Bertikalki, sokaren luzera lurraren kontra ez jotzeak mugatzen duela;



2. eta horizontalki, buru gainetik eraginez. Kasu honetan soka luzeago izan daiteke eta bide batez, joaldi luzeagoak.

Praktika eta helburuak

Joaldi luzeak egin, taulatxoaren abiadura aldatzen eta era horretan hotsa eta tonua aldatuz. Jole batzuek batera jotzerakoan armoniaren kontsonantzia eta disonantzia landu daiteke.

Taulatxoaren neurriak bereziki hotsaren bolumena baldintzatzen du.

Sokaren luzerak joaldien luzera baldintzatzen du; soka luzeago bada taulatxoak alde batera egiten duen errotazio mugimendua luzeagoa da. Jiratze noranzkoa aldatzeko taulatxoa ia gelditzen da eta momentu batean isiltzen da berriz ere beste aldera jiratzen eta hotsa ematen hasteko.

Tresna hauek egitea oso erraza dira.

Beltran, Juan Mari: Jolasetik musikara: Hots tresnak eta jostailuak (erakusketa); Hots, eritmo...

ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

- BELTRAN ARGIÑENA, Juan Mari. "Azal doinuak. Sunpriñu eta txulubite". En: *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, 29 zbk. Separata. Pamplona, 1978.
- . *Soinutresnak euskal herri musikan*. Egin, Euskal gaiak, 42. Hernani: Orain, 1996.
- . *San Telmo Museoko soinu eta hots tresnak*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- . *Juguetes sonoros. (Folklore musical Infantil, III)*. Didáctica de la Música, 6. Akal, 2002.
- BLANCO GARCÍA, Tomás. *Para jugar como jugábamos*. Colección de juegos y entretenimientos de la tradición popular. Centro de Cultura Tradicional de Salamanca, 1993.
- DONOSTIA, Aita. "Instrumentos de Música Popular Española". En: *Obras Completas del P. Donostia*, II. Bilbao: Ed. La Gran Enciclopedia Vasca, 1983; pp. 113-179.
- . "Instrumentos Musicales Populares Vascos". En: *Obras Completas del P. Donostia*, II. Bilbao: Ed. La Gran Enciclopedia Vasca, 1983; pp. 257-309.
- ETNIKER. *Juegos infantiles en Vasconia*. Bilbao: Etniker Euskalerrria. Eusko Jaurlaritza, 1993.
- PAYNO, Luis A. *Juguetes infantiles. Instrumentos musicales de construcción sencilla*. Temas didácticos de cultura tradicional. C. Valladolid: Castilla Ediciones, 1995.
- PURAS HERNÁNDEZ, José Antonio; RIVAS LAGO, M.^a Teresa. *Didáctica del folklore*. Temas didácticos de cultura tradicional, D. Valladolid: Castilla Ediciones, 1996.
- VEIGA DE OLIVEIRA, Ernesto. *Instrumentos Musicais Populares Portugueses*. Lisboa: Fundação Calouste Gulbenkian, 1982.
- VIOLANT I SIMORRA, R. *Instrumentos músicos de construcción infantil y pastoril en Cataluña*. Madrid: C. Bermejo, Impresor, 1953.
- . *El Pastors y la música*. Biblioteca Folklórica Barcino n.º 10. Barcelona: Editorial Barcino, 1954.
- ZAMORA VÁZQUEZ, Ángel. *Melodías tradicionales para jugar y bailar*. Temas didácticos de cultura tradicional. D. Valladolid: Castilla Ediciones, 1996.
- ZAMORA, Eugenio M. *Instrumentos musicales en la tradición asturiana*. Oviedo, 1989.